

ALEXANDER VON HUMBOLDT

Iñaki Azkune

NATURALISTA aleman honen izen osoa Friedrich Wilhelm Karl Heinrich Alexander zen, elia ez da nahastu behar Euskal Herria eta beste hainbat toki bisitatu zituen bere anaia Wilhelm hizkuntzalariarekin.

Gu Alexanderri buruz mintzatuko gara; batez ere Natur Zientziak aztertu eta geofisikaren sortzaile izan yenari buruz.

Alexander Humboldt, Berlinen jaio zen 1769. urteko irailaren 14ean. Aita Prusiako Federiko La Haundiaren gorteko ofizial zuen eta Tegel-eko gazteluan egin zituen lehen ikasketak. Gero Berlin, Frankfurt eta Gottingen-eko unibertsitateetan hezi zen. Hasieran zientziak oro har eta batez ere botanikak erakartzen zuen.

1790. urtean egin zuen bere lehen bidaiia. Europako mendebaldean ibili zen, bertan zientzigizon ospetsuak ezagutu zituelarik. Bidaiatik itzulita, Freiburg-eko Meatzaritza-Eskolan matrikulatu zen eta bertan Werner-en neptunismoa ederki ikasi zuen. Geologi eta meztze-injinerutza landu zituen.

1792. urtetik 1799. urterarte, Alexander Humboldt Prusiako gobernuaren meatze-ikuskari izan zen. Bayreuth-en lan bikaina egin zuen, eta tarteka korronte elektrikoak giharre eta nerbiotan zeukan eragina aztertzen ere aritu zen; Galvanik aurkituberria zuen fenomenoaz aztertzen, alegia. Galvanik Voltarekin izandako eztabaidan, Humboldt Galvaniren

alde atera zen, eta ezaguna da auzi hartan Voltak zuela arrazoi.

1976. urtean, ama hil zitzaion. Harengandik jasotako ondarea zela eta, bizimodua ateratzeko derrigor lana egin beharrik ez zeukan. Horregatik, bidaiak egiteko zeukan



Alexander von Humboldt

joerari amoz emanda, berebiziko ibilaldiak egin zituen.

Parisen zientzi materiala erosten ari zela, Aime Bonpland naturalista ezagutu zuen. 1798. urtean biak joan ziren handik Espainiara. Iberiar meseta eta Kanaria irlak aztertu zituzten. Madrilen bi zientzilariek Espainiak Ameriketara zuten koloniak bisitatzeko baimena lortuta, 1799. ean Venezuela aldera abiatu ziren. Hasieran gerrauntzi britainiarretatik babestu beharra

izan zuten, Napoleonen gerrak orduantxe hastear zeudelako.

Hurrengo bost urteetan zehar, ia hamar mila kilometro egin zituzten Ertamerikan eta Hegoamerikan landareak biltzen, meteorologiari buruzko datuak jasotzen, Lurraren eremu magnetikoa aztertzen eta geofisikarekin zerikusia zeukan beste hainbat arazo ikertzen.

1800. urtean Venezuelako Llanos lurraldea zeharkatu eta Cassiquiare ibaia aztertu zuten. Ibai horrek izan ere, Amazonas arroko urak Orinoco arrokoarekin elkartzen ditu. Bi ibai garrantzitsu hauek elkartuta zeudela aurkitu zuten, beraz.

1801. urtean Humboldt eta Bonpland Kolonbian ziren eta 1802. ean Chimborazo sumendia aztertu zuten. 6.272 metro dituen arren, bi zientzilaria 5.610 metroko altueraraino behintzat heldu ziren. Amerikako sumendiei buruz, lerrokatuta zeudela zioen, Lurrazaleko eten sakon baten norabidean baileuden.

Peruko Amazonas arroan ibili ondoren, Hegoamerikako mendebaldeko kostan itsasoak zeuzkan korronteak aztertu zituen. Horregatik du Humboldt izena hango itsas korronte batek.

Ameriketako indiarren antzinarako arrastoen berri ere eman zuen, eta Peruko guanoa ongari gisa erabiltzeko ekarri zuen Europara.

Europara itzuli baino lehen, 1803 eta 1804. urteetan Mexiko eta sortuberria zen Estatu Batuek tara joan ziren bi zientzilaria

